

OINARRIZKO HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN HEZKIDETZA ETA GENERO-BERDINTASUNAREN PLANA LANTZEKO GIDA



**OINARRIZKO HEZKUNTZAKO
IKASTETXEETAN HEZKIDETZA ETA
GENERO-BERDINTASUNAREN PLANA
LANTZEKO GIDA**

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailak onetsia (2015-V-05)*

Maketazioa:

Itxaropena

Azalaren diseinua:

Iván Landa

© María Victoria Fernández, Marta Irazoki eta Pedro María Torres

©EREIN. Donostia 2015

ISBN: 978-84-9746-970-8

L. G.: SS-870/2015

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena

Araba kalea, 45

20800 Zarautz

T 943 83 50 08 F 943 13 08 22

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

OINARRIZKO HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN HEZKIDETZA ETA GENERO-BERDINTASUNAREN PLANA LANTZEKO GIDA

María Victoria Fernández Roldán

Marta Irazoki Agirre

Pedro María Torres Elizondo

Hitzaurrea José Ramón Orcasitas García doktoreak

José Ramón Orcasitas García Doktorea.

Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle titularra.
Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila. UPV-EHU.

María Victoria Fernández Roldán.

Haur eta Lehen Hezkuntzako aholkularia, Irungo Berritzegunean. Gipuzkoa.

Marta Irazoki Agirre.

Irungo Toki Alai BHIko irakaslea. Gipuzkoa.

Pedro María Torres Elizondo.

Irungo Toki Alai BHIko irakaslea. Gipuzkoa.

Aurkibidea

Eskerrak	7
Elkar Hitzaurrea	7
Gida honen aurkezpena eta justifikazioa	9
Hezkidetza Plana garatzeko faseak	17
Ikasturte batean Hezkidetza Plana garatzeko kronograma-proposamena	20
Gaitasun orokorrak eta oinarrikoak.....	25
Helburu orokorrak eta berariazkoak.....	28
Edukiak	31
Orientazio metodologiko orokorrak.....	31
Ebaluazioa.....	35
Fase bakoitzaren garapenerako materialak. Irakasleak.....	51
1. fasea. Irakasleak: Sentsibilizazioa	53
2. fasea. Irakasleak: Diagnostikoa.....	79
3. fasea. Irakasleak: Planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa	103
Fase bakoitzaren garapenerako materialak. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak	115
Lehen Hezkuntzako ikasleak	117
1. fasea. Lehen Hezkuntzako ikasleak: Sentsibilizazioa.....	119
2. fasea. Lehen Hezkuntzako ikasleak: Diagnostikoa eta planifikazioa (2. eta 3. zikloak).....	143
Bigarren Hezkuntzako ikasleak	157
1. fasea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak: Sentsibilizazioa.....	159
2. fasea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak: Diagnostikoa eta planifikazioa	181
Gelarako materialak.....	191
Fase bakoitzaren garapenerako materialak. Familiak, AZP eta hezkuntzako gainerako eragileak....	203
1. fasea. Familiak, AZP eta hezkuntzako gainerako eragileak: Sentsibilizazioa	207
2. fasea. Familiak, AZP eta hezkuntzako gainerako eragileak: Diagnostikoa.....	229
3. fasea. Familiak, AZP eta hezkuntzako gainerako eragileak Planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa	249
Hezkidetza eta Genero Berdintasunaren Planaren garapena.....	257
Hezkidetza eta Genero Berdintasunaren Plana	259
Bibliografia.....	275

Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiogu Errenteriako Udalari, 2010. urtean Irungo Berritzeguneko ordezkari gisa herriko Berdintasun Plana berritzeko lanean parte hartzeko aukera eman izanagatik. Prozesu horretan, Berdintasun Foro bat sortu zen; foro horretan, herriko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduek parte hartu zuten, udaleko berdintasun-teknikariaren laguntzaz. Errenteriako Euskara Zerbitzua ere inplikatu zen, dokumentu honen zati baten itzulpena eginez, hain zuzen ere.

Gure esker ona, halaber, gai honetan interesa agertu eta hemen aurkezten diren materialak inplementatzen hasi diren Irungo Berritzegunearen eragin-eremuko ikastetxeei. Ikastetxe horietako batzuek aldaketak egin dituzte tresna edo baliabide batzuetan, gainera, edo txosten honetan jasotako beste batzuk abian jartzea proposatu dute.

Eskerrik asko, era berean, Irungo Berritzeguneari, lana ahalbidetu eta bultzatzeagatik.

Joserra Orcasitasi, liburu honen hitzaurrea edo, hobeto esanda, ELKARhitzaurrea, idazteagatik. Eta, amaitzeko, Javier Monzón eta Alberto Pérezi, euren aholku onengatik.

Elkar Hitzaurrea

Liburu honen egileek aurkezpen hau idazteko eman didaten aukera eskertuz hasi nahi dut. Eskerrik asko, nire eta euren bizitzako hainbat tartetan lankide eta bidelagun izan ditudan lagunei, proiektuetako lankideei, irakasleei...

Elkarrekin eraiki eta orain aurkezten ari diren lanak “hezkidetzeta eta genero-berdintasuna” gaiaren gaineko elkarrizketarako gonbita izan nahi du. Elkarrizketarako gonbita egin nahi die, hain zuzen ere, jadanik gaiari buruz gogoeta egin dutenei, gaia begien bistan eta mahai gainean dutenei, gaiarekiko interesa dutenei, pertsonekin lan egiten duten heinean gaia axola zaien pertsoneri.

Genero-berdintasunari arreta emateak berarekin dakar ohartzea egungo benetako egoera ez dela berdintasunezkoa, eta, ondorioz, ez dela bidezkoa. Berarekin dakar genero-berdintasunari buruzko jarrera bat hartua izatea, geure egiten dugun horri heltzea... “Genero-berdintasunak” geure arteko berdintasuna esan nahi du, pertsonen artekoa, zeinak ikusten baikaituzte, etiketa-hitz bakar horri erreparatuz, generotan bereizita-ezberdin, gizartean praktika sozial bereziak atxikitzen zaizkien generoetan bereziak.

Jakina, kultura, lan kulturala... hitz egiten digun hizkuntza horretan bizi gara pertsonak, egitera bultzatzen gaituzten gizarte-komunitateetan. Kultura. Hizkuntza, gertaera sozial batzuk, euren inertzian, testuinguruei eutsiz, elkar lotzen gaituztetenak eta testuinguru horretan izaten-egiten ari garenak izatera garamatzatenak. Baina historia ere bagara. Historia egiten dugu... Material hau, bada, oraindik egiteko asko dagoela ikusten duten eta zer eginga badutela uste duten pertsonentzat sortua da. Elkarrizketaren bidez, munduarekin konpromisoa hartuz, besteekin batera bestelakoak izango direla badakiten pertsonentzat.

Horregatik bultzatu nahi da elkarrizketa hori eskola-komunitatean: ikastetxeko irakasle eta profesionalen, ikasleen, familien... artean. Inguruneari irekitako eskola-komunitate batean,

komunitatea abiapuntu hartu eta ingurunearekin elkarriketan ingurune hori eraldatu dezan, giza harremanak aberastuz. Esan dugu, jada, elkarriketak eraldatzen gaituela; baina jakin behar dugu, gainera, gure historiaren protagonista-arduradun izanik, bizi ditugun testuinguru sozialetako elkarriketa partekatuak testuinguru sozialak aldatzen dituela, komunikazio-interesez betetzen dituelako, eta hezi egiten gaituela, hezibide oneko egiten gaituela (Orcasitas, 2005). “Praktika-komunitate” (Wenger, 2001) batean koherente diren hitzek eta gertakizunek kontzienteki hezibide oneko egiten laguntzen gaituzte, eta besteen praktketan aldaketak errazteko bidea ematen dute. Horretan datza proiektu eszentrikoak eraikiz beren historia eta historia orokorra egiten duten Irakasle Talde Estrategikoen eginkizuna, jakin badakitelarik “egia ‘demokratikoak’ demosa zeharkatu behar zuela, eta haren elkarriketatik sortu”, Lledón (1992, 93, 8. oharra), bertatik eraikitzeke berriak egingo gaituen Proiektua. Hain zuzen ere, “euren benetako hitza” esan eta egiten dute talde horiek praxian, eta mundua eraldatzen dute haren bidez.

Elkarrekin arituz eta pentsatuz denentzako biziguneak, ikastetxea, gela, patioa, familia-bilerak... hobetzera begirako proiektuak eraikitzen dituzte talde horiek. Biziguneak hobetzeko, elkarreaginak aldatuz, pertsonen arteko komunikazio-bilgune berriak ahalbidetuz, harremanetan arrazoi pertsonalak azalera daitezzen erraztuz, norberaren balio eta edertasun gorenetik agertzen utziz geure buruari. Geure distiraz agertuz, garen hoberenetik. Geure komunitate profesionala hobetuz. Pertsonak perteneziazko giza-espazioetan elkarri lotuz.

Gure artean hainbeste urte egiten dituzten neska-mutilak oharkabean pasatu ez daitezzen erraztean datza biziguneak hobetzea; ikusaraztean ohartu garela haien existentziaz, jabetu garela haien baitako edertasunaz. Bakoitzak bere bihotzean eraman gaitzan lortzean, gurekin eginez ikasi zuelako, besteekin batera. Egiten dugun horrek egiten baikaitu, ikastetxean elkarbizitza demokratikorako gune sozialak egitea da kontua. Proiektu horiei eustea eta horietan sakontzen joatea, eskola-komunitateko kide berrien artean gero eta konplize gehiagorekin bat eginik, demokraziaren aldeko konspiratzaileekin bat eginik (Maturanak dioen moduan, 1990).

Material aberatsak, pentsatzeko, erabakitzeke, praktikatzeko, aldaketa ulerkor eta eraginkorrak errazteke... aldaketak aberasten joango den Hezkidetzeta eta Genero Berdintasunaren Plana elkarrekin eraikitzen joateko. Bizitza instituzionalean hitz egoki bat azalertzeko bidea emango duten materialak.

Haiek eta zuek zorionduz bukatu nahi dut hitzaurre hau. Haiek, esklabotzatik ateratzeko gonbita egiteagatik, eta zuek, erronka hau onartu eta hiritar zuzenagoak izateko ahalegina egiteagatik, Euskadiko pertsona guztientzat –mutilentzat nahiz neskentza– eskola hobea eraikitzeke bidean. “Platonek esklaboaz emandako definizioaren arabera, esklaboa da bere jokabidea gidatzen duten helburuak beste batengandik onartzen dituen hura. Egoera hori legezko zentzuan esklabotasunik egon ez arren ere gertatu ohi da. Jarduera jakin bat sozialki onuragarria izanik haren erabilgarritasuna ulertu gabe edo harekiko interes pertsonalik gabe pertsonak jarduera horri ematen zaizkionean gertatzen “ Dewey (1967, 96).

José Ramón Orcasitas.

Gida honen aurkezpena eta justifikazioa

Gipuzkoako hainbat ikastetxetan **hezkidetza** eguneroko praktikan txertatzea ezinbestekoa dela ohartu izanetik eratorritako kezka eta premia dira gida honen abiapuntuak. Ikastetxe horietan, ezinbestekotzat jo dute azken urteetan elkarbizitza hobetzeko bidean Elkarbizitza Planekin egindako lana osatu eta zabaltzea. Plan horiek familien, langile ez-irakasleen, ikasleen eta irakasleen partaidetzaren bidez gauzatu dira, hau da, hezkuntza-komunitate osoaren elkarlanean. Gida honen abiapuntua, beraz, lankidetza horretatik sortutako kezka eta premia dira.

Proposamen hau garatu dugun kideek 2006-2007 ikasturtean EAEn egindako Elkarbizitza Planen praktikajeon parte hartu genuen, eta, 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetan, irakasleen prestakuntza eta Elkarbizitza Planak lantzen aritu ginen Irungo Berritzegunearen eragin-eremuko ikastetxeetan. Prozesu horren emaitza oso modu positiboan bizitu zuten ikastetxeetan, ondoren egindako ebaluazioek adierazten duten moduan. Prozesu horretan parte hartu izanak eta hain bide positiboa egin izanak bultzaturik, esperientzia hura hartu dugu **Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxeetan Hezkidetza eta Genero Berdintasunaren Plana** (aurrerantzean, **Hezkidetza Plana**) garatzeko proposamen didaktiko hau lantzeko oinarri: prozesu hartan landutako faseak, lan-metodologia eta egitura, hain zuzen ere.

Txosten honetan aurkeztuko ditugun materialek egitura hau dute:

Esparru teorikoa eta legala agertzen dira, lehenik eta behin. **Esparru teorikoan**, gida hau lantzerako eraman gaituzten arrazoiak azaltzen ditugu, eta baita lan-proposamen honek euskarri duen eremu kontzeptual eta pedagogikoa ere. **Esparru legalean**, bestalde, proposamen honek oinarri dituen berdintasunari buruzko legeak aipatzen ditugu, hezkuntza esparruan aplikagarri direnak.

Lan honetan proposatutako **helburuak** eta **edukiak** ere zehazten dira, baita metodologia-orientazio orokorrak ere, Hezkidetza Plana eraikitzeko prozesua inplementatzean lagungarri izango ditugunak.

Ondoren, gure lana zer **sektore**ri begirakoa den zehazten dugu: ikasleak, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak (Oinarrizko Hezkuntza) eta familiak, Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko langileak eta hezkuntzako gainerako eragileak. Sektore bakoitzarekin bereiz nahiz zenbait sektoreekin batera eta modu paraleloan landu daiteke, dena den. Sektore bakoitzarentzat lan-erritmo jakin batzuk ezar daitezke, baina finkatutako faseak errespetatuz, betiere, eta sektore bakoitzaren ekarpenak azken dokumentuan txertatuta.

Aipatutako estamentu bakoitzarekin garatu beharreko **faseak** zehazten dira, jarraian:

- Sentsibilizazioa
- Diagnostikoa
- Planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa

Fase horiek modu jakin batean garatuko dira talde bakoitzarekin; adibidez, Lehen Hezkuntzako ikasleekin diagnostikoa eta planifikazioa fase bateratu batean landuko dira. Bestalde, irakasleek gelan erabili ahal izateko materialak eskaintzen dira Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin eremu bakoitza lantzeko, hala nola emakumearen agerikotasuna, erantzukidetasuna, genero-indarkeriaren prebentzioa...

Hezkuntzako eragileekin fase guztiak garatu ondoren Hezkidetza Plana garatzeko informazioa eta hartutako erabakiak biltzeko txantiloia eskaintzen dugu.

Bukatzeko, atal bakoitzari buruzko bibliografia, web-orriak eta gelarako materialak bildu ditugu.

ONARRIZKO HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN HEZKIDETZA ETA GENERO BERDINTASUNAREN PLANA GARATZEKO GIDA

EREMU TEORIKO ETA LEGALA

- Gida honen aurkezpena eta justifikazioa
- Ikastetxeko Hezkidetza eta Genero berdintasunaren plana garatzeko faseak
- Helburuak
- Edukiak
- Metodologia-orientazio orokorrak

FASE BAKOITZAREN GARAPENERAKO MATERIALAK

IRAKASLEAK

- Sentsibilizazioa
- Diagnostikoa
- Planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa

LH ETA BHko IKASLEAK

- Sentsibilizazioa
- Diagnostikoa
- Planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa
- Gelarako materialak

FAMILIAK, AZP ETA HEZKUNTZAKO GAINERAKO ERAGILEAK

- Sentsibilizazioa
- Diagnostikoa
- Planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa

IKASTETXEKO HEZKIDETZA ETA GENERO BERDINTASUNAREN PLANAREN GARAPENA

PLANAREN GARAPENERAKO PROPOSAMENA

1. Ikastetxearen testuingurua
2. Planaren justifikazioa
3. Ikastetxeko diagnostikoa
4. Helburuak
5. Helburuen planifikazioa
6. Antzemandako prestakuntza-beharrak
 - 6.1. Irakasleen Prestakuntza Plana
 - 6.2. Familia, AZP eta hezkuntzako gainerako eragileentzako prestakuntza-planak
 - 6.3. Ikasleekin Esku Hartzeko Plana
7. Hezkidetza eta Genero Berdintasunaren Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Marko teorikoa

Hezkidetzaren gaiari heltzeko, lan honetan hezkidetzari buruz erabiliko dugun definizioa emango dugu, lehenik eta behin. Hain zuzen ere, Antequerako (Malaga) CEPen aholkulari David Sánchez Garridok hezkidetzaren arduradun eta koordinatzaileentzat egindako ikastaro batean emandako definizioa da: *“Hezkuntzako edozein eragilek genero-estereotipoek inposatzen duten garapen pertsonal mugatua gainditzeko eta pentsamenduan, jarreretan, portaeran, munduaren ikuskeran eta interpretazioan aldaketak eragiteko garatzen duen eskuhartze nahitazkoaren baitako eduki, helburu eta estrategien multzoa. Kultura androzentriko eta patriarkalak berezko duen sexu-diskriminazioak dakarren inertziak soilik justifikatzen du gizakien arteko desberdintasuna, eta hori prebenitu, orekatu edo errotik ateratzea da helburua”*.

Hezkidetzaren bat dator, gure ustez, defendatzen dugun **eskola inklusiboaren** kontzeptuarekin: alegia, aniztasuna ezaugarri aberasgarritzat –eta ez arazotzat– duen eskola, aniztasunaren alde borrokatzea eta arlo horretan aurrera egitea merezi duen erronkatzat dituen eskola. Ildo horretatik, genero-berdintasuna lortzeko bidean, sexu-aniztasuna, aukera-berdintasuna, genero-indarkeriaren prebentzioa... ere kontuan hartzen laguntzen digu hezkidetzak. Gurekin dauden neska-mutilak, haurrak eta gazteak hiritar kompetenteak izatea da gure helburua; aniztasunekin begirunetsuak izatea; euren bizitzan harremana duten pertsonekin kooperatu eta enpatizatzekeo gai izatea, lagunekin, familiarekin, lanean...; hiritar kritiko, adeitsu eta arduratsuak izatea.

Kontuan izan behar dugu hezkuntza inklusiboa lortzeko lan egiten duen eskolak askotariko gaitasunak garatzen lagundu behar diela ikasleei, hain zuzen ere, Jacques Delors-ek aipatutako hezkuntzaren lau zutabeak garatzen: **ezagutzen ikastea** (etorkizunean baliagarri izango zaiena ikastea, ikasten ikastea eta bizitzan zehar ikasten jarraitzea), **egiten ikastea** (bizitzan topatuko ditugun egoeretan ikasitakoa modu egoki eta eraginkorrean, kompetentean, praktikan jartzeko gai izatea), **izaten ikastea** (norberaren jardunean gizaki gisa garatzen laguntzea, modu globalean, gorputza eta burua, sentsibilitatea eta adimena, banakako erantzukizuna, pentsamendu kritikoa...) eta **elkarrekin bizitzen ikastea** (arduraz kooperatzeko eta banakako zein taldeko proiektuak garatzeko gai izatea, munduari buruzko ikuspegi zabal eta malguarekin, beste pertsona batzuk ezagutzeko eta haiengan islatuta norbera ikusteko gai izatea, enpatia eta gatazken bake-bidezko ebazpena bultzatzea).

Ikastetxeetan hezkidetzaren ikuspegia txertatzea ezinbesteko ekintza da, gure ustez, emakume eta gizonen arteko etorkizuneko desberdintasunak saihesteko eta ikastetxeko elkarbizitza hobetzeko.

Gaur egun, ordea, ikastetxe batzuetan hezkidetzaren ez da kontuan hartzen hezkuntza praktikan; hau da, ez dago txertatuta ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan, Curriculum Proiektuan, Elkarbizitza Planean, etab. Eta hezkidetzaren funtsezko helburua den eskoletan ere, zailtasunak sortu ohi dira, batzuetan, hezkidetzaren modu eraginkorrean inplementatzeko.

Beharrezkoa da, beraz, lanean jarraitzea, hezkidetzaren presentzia errealitate bat izan dadin antolaketari, curriculumari, didaktikari... dagozkien dokumentuetan, zeinen arabera planifikatzen baita ikastetxeen jokabidea, bai eta haien inplementazioan ere. Baina, batez ere,

hezkidetzak eguneroko bizitza blaitu behar du, hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen arteko harremanen bidez.

Ikastetxeetako hezkidetzaren arloko lanean, funtsezko elementua da emakumeak **agerikoak** izatea zientziaren eta kulturaren eremuetan. Agerikotasunik eza androzentrismoaren ondorioa da, gizonezkoaren ikuspuntutik egina baita gaur egungo zientzia, eta, horren ondorioz, ez baita apenas agertzen emakumeek kulturari, historiari, politikari... egindako ekarpenik; ezkutuan gelditzen dira, halaber, femeninotzat edo emakumezkoentzat interesgarriztat jotzen diren kulturaren eremuak, eta estereotipo eta aurreiritzietan oinarritutako baieztapen edo adibideak nagusitzen dira emakumeei buruz.

Ikusten ez den hori ikusgarri edo ageriko izango da, horrenbestez, gure beste lanetako bat: hezkuntza curriculumaren eremu eta arlo guztietan emakumezkoen presentzia areagotzea, kontuan hartzea agerikotasunak emakumezkoek jakintzaren eremu guztietan historian zehar egindako ekarpenen aitortza eta aintzatespena adierazten duela, munduan izan duten eginkizuna onartzea eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren ideiarra jotzea.

Aipatu beharrekoa da, halaber, **genero-ikuspegiaren zeharkakotasunaren** kontzeptua, **genero-ikuspegi integratu** edo **genero-mainstreaming** izenez ere ezaguna.

Kontzeptu hori NBEk 1986. urtean antolatu eta Nairobin egindako Emakumeen Munduko III. Konferentzian erabili zen lehenengo aldiz. Harrezkero, nazioarteko zein estatuko erakundeek bere egin dute eta haren aplikazioa bultzatzen dute.

Genero-ikuspegiaren zeharkakotasunari buruzko definizio ugari dago, baina denak bat datoz puntu honetan: genero-berdintasunaren ikuspegia gizartearen eremu guztietan txertatu behar da. Eta emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa politika publiko guztietan aplikatzean datza.

Mainstreaminga, bestalde, komunitate-politika guztietan –bai planifikazioan eta bai garapen eta ebaluazioan ere– emakumeen eta gizonen baldintza, egoera eta beharren arteko ezberdintasunak modu sistematikoan kontuan hartzeko formula gisa definitzen da.

Mainstreaminga prozesu politiko eta tekniko da, eta aldaketak eskatzen ditu antolaketa eta kultura instituzionalean, gizarte-egituretan aldaketak eragiteko.

Bizitzaren eremu guztietan emakumearen partaidetza erabatekoa begiesten da, politika orokor zein sektorialetako proposamenak genero-berdintasunaren ikuspegitik aztertuta.

Genero-ikuspegiaren zeharkakotasunaren benetako aplikazioa gerta dadin, baldintza batzuk bete behar dira: aldaketak egiteko borondate politikoa eta konpromisoa; baliabideak, prestakuntza tekniko eta informazioa; eta ikuspegi hori aplikatzeko metodo, teknika eta tresnak.

Alderdi horretatik, kontzeptu hori eskola-eremuan aplikatzeak hezkidetzeta-programak martxan jartzea ekarriko luke, eta ikastetxe guztietan hezkidetzeta eta genero-berdintasunaren ikuspegia txertatzea.

Zeharkakotasunaren printzipioari esker osatu da, hain zuzen ere, eskola-eremuan hezkidetzeta lantzeko babesa eta eskakizuna ezartzen duen gaur egungo lege esparru zabala.

Esparru legala

Hezkuntzako –unibertsitatekoan eta unibertsitatez kanpokoan– emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko esku-hartzearen gaineko araudia jasotzen da ondoren. *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako araudia hezkuntza-eremuan, Emakundetik jasoa (2011):*

1.-HEZKUNTZA EZ-UNIBERTSITARIOA

Alderdi orokorrak

- 28. Art., 4/2005 Legea. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- 23. Art. 3/2007 Legea. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoa.
- 4. Art. 1/2004 Legea. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriena.
- 1. eta 2. Art. 2/2006 Lege Organikoa. LOE. Lege Organikoa 2/2006, maiatzaren 3koa, Hezkuntzakoa.

Curriculumaren edukia

- 20. Art. 4/2005 Legea
- 24. Art. 3/2007 Legea
- 4. Art. 1/2004 Legea
- 17, 18, 23, 24, 25, 33, 40, 66. Art. 2/2006 Lege Organikoa. Hogeita bosgarren xedapen gehigarria
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana

Material didaktikoak

- 30. Art. 4/2005 Legea
- 24. Art. 3/2007 Legea
- 6. Art. 1/2004 Legea
- 2/2006 Lege Organikoaren laugarren xedapen gehigarria

Pertsonak, egiturak eta koordinazioa

- 31. Art. 4/2005 Legea
- Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Indarkeria Jasaten Dituzten Emakumeei Harrera Hobeia Egiteko Erakundeen arteko II. Akordioa
- 24. Art. 3/2007 Legea
- 8. Art. 1/2004 Legea
- 126 eta 127. Art. 2/2006 Lege Organikoa
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana

Prestakuntza eta ikerketa

- 32. Art. 4/2005 Legea

- 24. Art. 3/2007 Legea
- 7. Art. 1/2004 Legea

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak eskolaratzea

- 5. Art. 1/2004 Legea
- Lege Organikoaren hogeita batgarren xedapen gehigarria
- 2/2006

Hezkuntza ikuskaritza

- 9. Art. 1/2004 Legea
- 151. Art. 2/2006 Lege Organikoa

2.-UNIBERTSITATE HEZKUNTZA

- 33. Art. 4/2005 Legea
- 25. Art. 3/2007 Legea
- 4. Art. 1/2004 Legea
- 6 eta 7. Art. eta zortzigarren xedapen gehigarria, 3 /2007 Legea
- 4. Art. 11/2009 Dekretua. 11/2009 Dekretua, urtarrilaren 20koa, Gradu, Master eta Doktorego tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzkoa
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana (2010)
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana (2014)

Beste alderdi positibo aipagarri bat da hezkuntza-agintariek kezka agertu izana gai honekiko; horren erakusgarri dira 2012-2013, 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteen hasierako ebazpenak.

Hezkuntza Sailburuordearen **Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan** 2012-2013 ikasturtea antolatzeko moduari buruzko ebazpenean honako jarraibide hauek agertzen dira (posta elektronikoko helbide honen bitartez eska daitezke: plancoeducacion.igualdad@gmail.com):

Ikastetxeek aurrerapausoak eman behar dituzte haur eta gazte guztien hezkuntza inklusioaren bidean. Ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza izan dezaten konpromisoa hartu beharra dago.

Hezkidetza-eredua ikastetxeek aurreikusiko eta landuko dituzten dokumentu eta ekintza guztietan bildu beharko da; izaera sexista duten materialak edo praktikak baztertzeari arreta berezia eman eta berdintasun-irizpideak bildu.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 126.2 artikuluekin bat etorruta, eskola kontseiluek, dagoeneko ez badute egin, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun neurriak bultzatzeko pertsona bat izendatuko dute. Pertsona horren eginkizuna izango da ikastetxearen jarduerarako plangintza- eta antolamendu-proiektuetan genero-ikuspegia txertatzea. Haren ardura izango da, halaber, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ikastetxe osoan benetakoa izan dadin bultzatzea. Horretarako, eginkizun hauek izango ditu:

1. Berdintasun- eta hezkuntza-arloko arau-esparrua ezagutzea eta zabaltzea, eta ikastetxean bete dadin bultzatzea.

2. *Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun araudietan xedatutako baloreak eta helburuak ikastetxeko hezkuntza-proiektuan bilduta daudela zaintzea.*
3. *Irizpideak ezarri, ikastetxean onartzen diren aurrekontuak genero-ikuspegia kontuan hartuta egiten direla ziurtatzeko. Baliabideak genero-berdintasuna errespetatuta esleitu eta banatuko dira.*
4. *Eskolaz-kanpoko ekintzak eta bestelako ekintza osagarriak genero-ikuspegia aintzat hartuta antola daitezten bultzatzea.*
5. *Prestakuntza/sentsibilizazio neurriak edota ekimenak sustatzea hezkuntza-komunitatean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta hezkidetzaren bultzatzeko.*
6. *Ikastetxean genero-indarkeria kasuak antzemateko eta haien aurrean jarduteko neurriak ezartzen direla zaintzea (jazarpen sexista, sexu-jazarpena, etxeko tratu txarrak, sexu-erasoak...).*
7. *Udal-administrazioekin, beste ikastetxe, entitate eta erakunde batzuekin, elkarteekin eta abar lankidetzan aritzea berdintasuna, hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa bultzatzeko.*
8. *Ikasturte amaierako azken txostenean ikastetxean berdintasunaren alorrean egindako jardueren berri eman dadin proposatzea.*
9. *Hezkuntza-komunitatean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatuko duen beste edozein ekintza.*

Pertsona hori hautatzeko, prestakuntza, esperientzia eta berdintasunaren eta hezkidetzaren alde aurretik egindako lana kontuan izango dira.

Era berean, komenigarria da hezkuntza-komunitateko kide guztiei otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. kapituluko 1. sekzioak (Unibertitate-irakaskuntzak) dioenaren berri ematea, eta batez ere 28, 29, 30, 31.1 eta 31.3 artikuluetan jasotakoak, 4/2005 Legea, Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako Legea).

Modu berean, Hezkuntza Sailburuordearen **Haur eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan** 2013-2014 ikasturtea antolatzeko moduari buruzko ebazpenak neurri hauek proposatzen ditu:

I. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko neurriak sustatzea. *Hezkidetzaren erdia ikastetxeek landuko dituzten dokumentu eta ekintza guztietan bildu beharko da, izaera sexista duten materialak edo praktikak baztertzeari arreta berezia emanez eta berdintasun-irizpideak jasoz. Zeregin horren dinamizazioan laguntzeko, Zuzendaritza Taldeak irakasle bat izendatuko du.*

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 126.2 artikuluekin bat etorritik, eskola-kontseiluek, oraindik egin ez badute behintzat, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko neurriak sustatuko dituen pertsona bat izendatuko dute.

Bi pertsona horiek elkarlanean lan egingo dute, aukeran hezkuntza-komunitate osoa ordezkatzeko duen talde baten barruan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta sexu-joera edo genero-identitateagatiko bazterkeriarik eza bultzatzeko ekimen horrek ikastetxe osoan benetako eragina izan dezan.

2014ko abenduaren 21ean eskuratuta, honako helbide honetatik:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dic1/eu_2041/adjuntos/resoluciones_organizacion_curso_2013_2014/resolucion_infantil_primaria_13_14_e.pdf

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dic1/eu_2041/adjuntos/resoluciones_organizacion_curso_2013_2014/resolucion_secundaria_13_14_e.pdf

Neurri horiek Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planean osatu dira.

Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana 2013ko urriaren 30ean aurkeztu zitzaion hezkuntza-komunitateari.

2014ko abenduaren 21ean eskuratuta, honako helbide honetatik:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_conviven/adjuntos/coeducacion/920006e_Pub_EJ_hezkidetza_plana_e.pdf

Azkenik, Hezkuntza Sailburuordearen **Haur eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan** 2014-2015 ikasturtea antolatzeko moduari buruzko ebazpenak honako neurri hauek proposatzen ditu:

***I.-Emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko neurriak sustatzea.** Hezkidetza-eredua ikastetxeek landuko dituzten dokumentu eta ekintza guztietan bildu beharko da, izaera sexista duten materialak edo praktikak baztertzeari arreta berezia emanez, eta parekidetasuneko eta tratu oneko harremanak bultzatzea, genero-biolentzia eta indarkeria sexista prebenitzea eta berdintasun-irizpideak jasoz. Zeregin horren dinamizazioan laguntzeko, Zuzendaritza Taldeak Hezkidetza eta genero-indarkeria prebenitzeko irakasle arduraduna izendatuko du .*

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 126.2 artikuluaekin bat etorritik, eskola-kontseiluek, oraindik egin ez badute behintzat, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko neurriak sustatuko dituen Berdintasunerako ordezkaria izendatuko dute.

Bi pertsona horiek elkarlanean lan egingo dute, hezkuntza-komunitate osoa ordezkatzeko duen talde baten barruan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta sexu-joera edo genero-identitateagatiko bazterkeriarik eza bultzatzeko eta genero-biolentzia prebenitzeko ekimen horrek ikastetxe osoan benetako eragina izan dezan.

Zentzu horretan, ikastetxeek sexu-aniztasunarekiko errespetua eta jokaera homofobo, lesbofobo eta transbofoboaren aurkako konpromisoa espresuki ikusarazi eta sustatuko duten mezua eta neurriak bultzatuko dituzte.

Neurri horiek Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planean proposatu diren xedapenekin osatu dira.

Beraz, 2014-2015 ikasturterako, beste 50 ikastetxe berriri eta 7 ikastetxe integralei ekimen honetara gehitzeko aukera emango zaie.

Azkenik gogorazten da, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen arabera, Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzen diren testu-liburuek eta irakaskuntzako beste material guztiek, hezkidetza helburuak barneratuta izan behar dituztela eta debekatuta dagoela izaera sexista dutenak

zabaltzea edo erabiltzea. Era berean, eskatzen da ikastetxeetan horrelako materialak aurkitzekotan Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzei jakinaraztea. Sailak barneko-prozedura bat 1.-urreikusi du urratze horiei aurre egiteko.

2014ko abenduaren 21ean eskuratua, honako helbide honetatik:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/eu/contenidos/informacion/dic1/eu_2041/adjuntos/organizacion_curso_2014_2015/resolucion_primaria_14_15_euskaraz.pdf

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/eu/contenidos/informacion/dic1/eu_2041/adjuntos/organizacion_curso_2014_2015/resolucion_secundaria_14_15_euskaraz.pdf

Orain artean aipatutako guztiarengatik, hezkuntza-komunitate osoak gai honen inguruko hausnarketa bateratua egin dezan espazioak irekitzea garrantzitsua dela iruditzen zaigu: zer ulertzen dugu hezkidetzan esaten dugunean?, zer iritzi dugu genero-berdintasunaz, gure ikastetxeari dagokionez?, zein dira gure indarguneak eta ahuleziak?, zer eremutan egin beharko genuke hobera?, nola egingo dugu?, nor hartuko du parte prozesuan?, zer erabaki hartuko dugu?, zer jarraipen- eta ebaluazio-prozesu gauzatuko dira?...

Hezkidetzan plana garatzeko faseak

Plana garatzeko, honako hiru fase hauek proposatzen ditugu: sentsibilizazioa; diagnostikoa; eta planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa. Fase horietako bakoitzean, lanerako tresna eta material jakin batzuk proposatuko ditugu, aukera emango digutenak hezkuntza-komunitateko kide guztion artean hausnartzeko eta berraztertzeko zer egiten dugun, baita nola egiten dugun eta nola hobetu dezakegun ere.

Fase bakoitzean gogoetarako, azterketarako eta erabakiak hartzeko tresna edo baliabide batzuk zehaztu ditugu; ikusteko eta eztabaidarako bideoak, artikulua eta gelarako beste material batzuk.

Material batzuetan, zer web-orreran aurki daitezkeen adieraziko da, eta beste batzuetan, berriz, haien aipamen bibliografikoa. Edonola ere, lan honetan aipatzen diren material asko Interneten eskuragarri daude. Guk aukera bat egin dugu, eta erabilerarako proposamen bat.

Gida hau, bestalde, proposamen irekia da, eta ikastetxe bakoitzak zehaztu eta erabakiko du prozesuari zenbat denbora eskainiko dion, zer erritmotan lan egingo duen, nor hartuko duen parte...; ikastetxeak berak aukeratu ahal izango ditu, halaber, proposatuen arteko tresnak eta gainerako materiala. Ikastetxe bakoitzak bere ezaugarri eta beharretara egokitutako prozesua diseinatu ahal izango du, azken batean.

Edonola ere, interesgarria da fase guztiak lantzea; ez da komeni ikastetxeko diagnostikoa egitea, adibidez, lehenago sentsibilizazio-fasea jorratu gabe, errealitatea modu kritikoa begiratzen lagunduko baitigu fase horrek, eta arreta non jarri jakiteko bidea emango. Modu berean, ezin izango ditugu hobekuntzarako helburuak lehenetsi eta planifikatu, ikastetxe bakoitzaren errealitateari egokitutako diagnostikorik gabe, hezkuntza-etaparen, ingurunearen, ikastetxea osatzen duten pertsonen... arabera.

Bai materialak eta bai lan-proposamena ikastetxean lanean diharduten edo eragiten duten beste pertsona batzuekin ere jorratu daitezke, modu paraleloan, hala nola Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalarekin (AZP), hezkuntza-laguntzako adituekin, jangelako langileekin, Eskola Kiroleko kideekin, eskolaz kanpoko ekintzetakoekin...

1. Sentsibilizazioa

fase honetan, gure iritzien gaineko gogoeta egingo dugu hezkuntza-komunitateko kide guztien artean, eta estamentu bakoitzaren ekarpen eta proposamenak jasoko dira.

Horretarako, hezkidetzaren eta genero-berdintasunaren arloko oinarrizko kontzeptu batzuei buruzko azterketa egitea proposatzen dugu, norberak kontzeptu bakoitza nola ulertzen duen jakiteko eta hizkuntza bateratzeko, horrela errazagoa izango baitzaigu akordioak eta hezkuntza-ekintza definitu eta planifikatzea.

Baterako hausnarketa horren bitartez, ikastetxean eta geletan lan egiten duten pertsonak eta familiek hizkera bera erabiliko dute, neska-mutilenganako igurikapen berriak sortuko dira, generoari loturiko gaien gaineko ikuspegia aldatuko dugu...

Azkenik, fase honi buruzko lanketa bukatu baino lehen, ikastetxe eta kolektibo gisa hezkidetzaren nola ulertzen dugun eta genero-berdintasun eraginkorra lortzera nola iritsiko garen definitu beharko dugu.

2. Diagnostikoa

Diagnostikoa ikastetxeko benetako egoeraz jabetzeko ezinbesteko pausoa da. Irakaskuntzaren arloko jardunbideak aldatzen hasteko abiapuntua: irakaskuntza-estiloa, irakasle-ikasle arteko harremanak, irakasleen artekoak, ikasleek eta irakasleek familiekin eta langile ez-irakasleekin dituzten harremanak, ikasgelako giroa eta abar aldatzeko abiapuntua, material eta baliabideak ikuspegi kritikotik aztertzekeo abiapuntua, betiere hezkidetzaren sustatuko duen eskola bat eraikitzeari begira.

Diagnostikoa egitean, elementu asko hartu behar dugu kontuan:

- Ikastetxearen dinamikatik eratortzen diren osagaiak eta ikastetxeaz kanpoko harremanak.
- Zer hizkuntza eta nola erabiltzen den.
- Helburu, eduki, jarduera, metodologia eta ebaluazioaren bitartez transmititzen den curriculum; baita egiteko, esateko... modu ez-esplizituen (curriculum ezkutua) eta erabiltzen diren materialen bitartez transmititzen dena ere.
- Espazioen erabilera.
- ...

Diagnostikoa egiteko, hainbat arlo aztertzea proposatzen dugu harremana dutenak irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuarekin, hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen arteko harremanekin, espazioen erabilerarekin, ikasle mutilenganako eta neskenenganako igurikapenekin, gure inguruko jendeari sexuaren arabera ezartzen dizkiogun rolerekin,...

Arlo hauek aztertzea proposatzen dugu:

- Ikastetxearen antolaketa eta kudeaketa
- Ikasgelaren antolaketa eta kudeaketa eta irakaskuntza-estiloa
- Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak
- Partaidetza eta ordezkariak
- Elkarbizitzaren antolaketa eta kudeaketa:
 - » Gatazken eraldaketa eta etika
 - » Ikasle-ikasle arteko harremanak

- » Irakasle-ikasle arteko harremanak
- » Irakasle-irakasle arteko harremanak
- » Irakasle-familia arteko harremanak
- » Ikasle-AZP arteko harremanak
- » Irakasle-AZP arteko harremanak
- » Familia-AZP arteko harremanak

Azterketa horren bidez, eskola-eremuko berdintasunik gabeko egoerei eta diskriminazio-egoerei antzeman nahi zaie. Zaila bada ere, ahalik eta hurbilpen zehatzena egiten saiatu behar dugu, horrek gure hurrengo zeregina erraztuko baitu, ekintza-plan bat planifikatu eta garatzea, hain zuzen ere.

3. Planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa

sentsibilizazio- eta diagnostiko-faseak gauzatura, argiagoa, egokiagoa eta partekatuagoa izango da hezkuntza-komunitatearen hautematea gai hauei buruz:

- Zein den ikastetxearen abiapuntua, hezkidetzari dagokionez: non gauden eta zer nahi dugun; antzemandako ongietzak eta gatazken arrazoiak, ikastetxean dauzkagun kontraesanak...
- Zein diren indarguneak eta lorpenak.
- Zer behar dugun gure irakaskuntza-jardunbidea hobetzeko, antzemandako ezberdintasun edo ahultasunak gainditzeari begira.
- Hezkidetzaren bitartez garatu nahi ditugun helburuen definizioa.
- Planteatutako helburu guztien arteko lehentasunak, garrantzitsuenak eta egingarrienak zein diren zehaztuta.

Hurrengo ikasturterako helburuak lehenetsi eta aukeratu ondoren, horiek lortzeko garatuko ditugun jarduerak diseinatuko ditugu, ekintza bakoitzaren arduradunak zehaztuko ditugu, baita beharko ditugun baliabideak, denbora, lorpen-adierazleak eta abar ere...

Ondoren, jarraipen- eta ebaluazio-planak jorratuko ditugu. Horretarako, ekintzen planifikazioan finkatutako lorpen-adierazleetatik abiatuta eta prozesua bere osotasunean kontuan hartuta, finkatutako helburuak zenbateraino lortu diren ebaluatuko dugu.

Azken batean, genero-berdintasuna lortzeko egiten dugun guztiak bat egingo du gure elkarbizitza hobetzeko prozesuarekin.

Prozesu hori bukatutakoan, Hezkidetzaren eta Genero Berdintasunaren Plana osatuko dugu, eta hezkuntza-komunitateari aurkeztuko zaio.

Hezkidetzaren Planak ezin die kontra egin Elkarbizitza Planari eta Tutoretza Planari, hirurak estu lotuta daudelako eta Tutoretza Plana zein Hezkidetzaren Plana Elkarbizitza Planean kokatu behar direlako, aldi berean elkarren osagarriak izanik.

Azkenik, aipatu nahi dugu lehenetsitako helburu eta jardueren inplementazioa Ikastetxeko Urteko Planean jaso beharko dela, eta Ikasturtearen Memorian ebaluatu.

Ikasturte batean hezkidetza plana garatzeko kronograma-proposamena

Atal honetan, lan-proposamena ikasturte batean garatu ahal izateko kronograma bat proposatuko dugu. Fase bakoitzean, erabiliko diren tresnak edo materialak agertzen dira, eta, horrekin batera, zenbat saio proposatzen diren eta zer sektoreri begirakoa den.

Irakasleekin bi ordu inguruko lansaiok egitea gomendatzen dugu, ikastetxeko prestakuntza-saiok aprobetxatuz.

Ikasleekin, berriz, Tutoretza, Herritartasunerako Hezkuntza (Lehen eta Bigarren Hezkuntza) eta Etika irakasgaiak baliatuko ditugu, eta Gizarterako eta Herritartasunerako Gaitasuna garatzen lagunduko dugu. Aldi berean, ikasleek ikastetxean ordezkariak duten egituretan ere lan egin dezakegu, hala nola Elkarbizitza Behatokian, Ordezkarien Batzordean, Elkarbizitza Zirkuluetan...

Ikasleei dagokienez, elkartu egin dira diagnostiko- eta planifikazio-faseak.

Familia, AZP eta hezkuntzako gainerako eragileekin egingo ditugun lansaioren iraupena talde horietako bakoitzaren ordu-erabilgarritasunaren arabera izango da; baina, edonola ere, gutxienez ordu eta erdikoak izatea gomendatzen dugu.

Oinarrizko Hezkuntzako ikasle eta familien kasuan, diagnostiko-fasean ordezkariak batzuk eskaintzen dira; hau da, ikastetxeak aukera izango du batzuk edo besteak erabiltzeko, daukan denboraren arabera, heziketa-mailaren arabera...

Kronograman, tresnen edo baliabideen zenbakia edo dagokion materialaren izenburu laburra besterik ez dira agertzen. Aurrerago zehazten dira baliabide eta material bakoitzaren nondik norakoak.

Kronograma hau proposamen bat denez, litekeena da ez egokitzea ikastetxeren baten behar edo aukeretara; horretaz jabetuta, zuri dagoen txantiloia bat ere eskaintzen dugu, ikastetxe bakoitzak bere planifikazioa egin dezan.

IKASTURTE BATEAN HEZKIDETZA PLANA GARATZEKO KRONOGRAMA-PROPOSAMENA

1. FASEA: SENTSIBILIZAZIOA	IRAKASLEAK		OINARRIZKO HEZKUNTZAKO IKASLEAK		FAMILIAK, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO PERTSONALA (AZP) ETA HEZKUNTZAKO GAINERAKO ERAGILEAK	
	LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEAK		DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEAK		3 SAIO: URRIA-AZAROA-ABENDUA	
	<p>1. baliabidea Bideoa: Coixet, I. (2012). <i>La mujer, cosa de hombres.</i> Bideoaren lan-fitxa.</p>	<p>Bideoa: <i>Magian sinesten al duzu?</i> (2. eta 3. zikloak). 1. baliabidea (1. zikloa).</p>	<p>1. baliabidea Bideoa: <i>Magian sinesten al duzu?</i></p>	<p>4 SAIO: URRIA-AZAROA-ABENDUA</p>	<p>Bideoa: Coixet, I. (2012). <i>La mujer, cosa de hombres</i>, 50 años de RTVE. Bideoaren lan-fitxa 2. baliabidea 2a baliabidea</p>	<p>3 SAIO: URRIA-AZAROA-ABENDUA</p>
	<p>2. baliabidea 2 eta 3 bideoak: Moreno, Marian. (2011). <i>Educación para la igualdad y prevención de la violencia de género.</i> 2a baliabidea Aurkezpena (ppt).</p>	<p>1a baliabidea (irudiek)(1. zikloa). 1b baliabidea (2. eta 3. zikloak). 2. baliabidea (2. eta 3. zikloak). 3. baliabidea (familia eta ikasleek etxean egiteko).</p>	<p>2. baliabidea (21 itema). 2a baliabidea Aurkezpena (ppt). Bideoa: <i>Egunon printzesa.</i> (DBHko 1. eta 2. mailak). 3a baliabidea Bideoa: Bikotean ematen den indarkeria interpertsonalaren prebentzioa eta... askoz gehiago. (DBHko 3. eta 4. mailak) 3b baliabidea</p>			

IKASTURTE BATEAN HEZKIDETZA PLANA GARATZEKO KRONOGRAMA-PROPOSAMENA

	IRAKASLEAK	OINARRIZKO HEZKUNTZAKO IKASLEAK		FAMILIAK, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO PERTSONALA (AZP) ETA HEZKUNTZAKO GAINERAKO ERAGILEAK
		LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEAK	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEAK	
1. FASEA: SENTSIBILIZAZIOA				

	OINARRIZKO HEZKUNTZAKO IKASLEAK		FAMILIAK, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO PERTSONALA (AZP) ETA HEZKUNTZAKO GAINERAKO ERAGILEAK
	LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEAK	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEAK	
IRAKASLEAK			
2. FASEA: DIAGNOSTIKOA			
3. FASEA: PLANIFIKAZIOA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA			
IKASTETXKO HEZKIDETZA ETA GENERO BERDINTASUNAREN PLANAREN GARAPENA. HEZKUNTZA KOMUNITATEARI AURKEZTEA (MAIATZA-EKAINA)			

Gaitasun orokorrak eta oinarrizkoak

Proposamen hau lantzeko garaian, kontuan izan ditugu **Gaitasun Orokorrak** (175/2007 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa, eta III. Eranskina. 2007Ko azaroaren 13ko EHAA).

2014ko abenduaren 21ean eskuratua, honako helbide honetatik:

<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2007/11/0706182a.pdf>

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/es_5495/adjuntos/iii_eranskina_oinarrizko_gaitasunak.pdf

Dekretu horretan, honela definitzen dira Hezkuntza Gaitasun Orokorrak:

“Heziketa oso baterako erreferentziazko ardatzak dira hezkuntza-gaitasun orokorrak, bai oinarrizko hezkuntzarako, bai bizitza osoan zehar ikasteko prozesurako, eta hezkuntza-testuinguru guztietan ikasten dira, formaletan nahiz ez-formaletan. Hezkuntza-gaitasun orokor horiek ezin dira zuzenean ebaluatu; izan ere, hezkuntza-prozesu osoko plangintzaren eta haren gauzapeanaren loturazko eta bitartekaritza-lanak egiten dituzten aldagai konstanteak dira. Horien bidez, hezkuntza-planteamendu integrala egiten da, eta askotariko gaitasunak eskuratzeko modua dute ikasleek...”

Delors Txostena eta ELGE antolakundeko Txostena (DeSeCo) aintzat hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Gaitasun Orokor hauek proposatu dira:

- 1.– **Arduraz eta autonomiaz bizitzen ikastea**, eta, zehazki, nork bere burua ezagutzen ikastea, norberaren buru-osasuna eta osasun fisikoa zaintzen ikastea eta ohitura osasuntsuak hartzea. Izadiak eta natura-baliabideez arduraz gozatzen ikastea, gizadi osoaren eta egungo nahiz geroko belaunaldien ondarea diren aldetik.
- 2.– **Ikasten eta pentsatzen ikastea**, eta informazioa interpretatzea, sortzea eta ebaluatzea. Erabakiak hartzen eta arazoak konpontzen ikastea, ikasteko eta lan egiteko ohiturak eta ikasteko estrategiak eskuratzea, eta jakintza zientifikoko eta matematikoko metodoak aplikatzen ikastea, jakintza teorikoaren eta praktikoaren alorrek planteatzen dituzten arazoak identifikatzeko eta konpontzeko.
- 3.– **Hizkuntza ofizialetan**, eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean **hitz egiten ikastea**, eta, berariaz, komunikabideak eta informazioko eta komunikazioko teknologiak irizpide kritikoz erabiltzen eta interpretatzen ikastea. Irizpide hori bera jarraitu behar dute ikasleek hizkuntza artistikoarekin, musika-adierazpenarekin eta gorputzaren, plastikaren eta ikusizko alorraren adierazpenekin.
- 4.– **Elkarrekin bizitzen ikastea**, eta, berariaz, harreman positiboak izaten eta, gatazka-egoeretan, elkarriketara eta negoziatzera jotzen ikastea. Halaber, gogoz eta demokratikoki parte hartzen ikastea, lankidetzan jarduten eta taldean lan egiten ikastea, eta aniztasuna errespetatzen ikastea.
- 5.– **Pertsona gisa garatzen ikastea**, norbera izanda, eta emozio negatiboak kontrolatzea eta nork bere burua modu positiboan eta errealistan balioztatzea. Pertsona autonomoa izatea, norberak hartutako erabakien ardura hartzea, eta printzipio etikoei jarraitzea.
- 6.– **Egiten eta ekiten ikastea**, erabakiak eta ardurak hartzeko ekimena izatea, esfortzua eta zailtasunak gainditzeko ahalegina balioestea, eta ekintzailea izatea, bizitzaren alor guztietan.

Hezkidetza Planaren garapenak barne hartzen ditu gaitasun orokor horiek guztiak, haietako bakoitzean eragiten baitu. Plana garatzeko proposatutako prozesuak ikasleen garapen integrala bilatzen du, partaidetza aktibo, arduratsu eta kritikoa bitartez eta curriculumeko arloen zein eskolan, familian, gizartean... aurkitzen duten guztiaren bitartez.

Irakasleak, familiak eta langile ez-irakasleak ere inplikaturik daude prozesu horretan, hezkuntza-komunitateko kide diren heinean, eta, hala, ikasleekin partekatuko dute prozesua.

Gure lan-proposamena garatzean, **Oinarrizko Gaitasunak** izan ditugu, ordea, erreferentzia nagusi; bereziki, zeharkakotzat hartzen direnak, hala izateagatik modu kontziente eta sistematikoan garatzeko hain zailak gertatzen direnak, hain zuzen ere.

Proposatzen dugun lana **Gizarterako eta Herritartasunerako Gaitasuna** garatzearekin estuki lotuta dago, 175/2007 Dekretuaren III. Eranskinean gaitasun horri buruz ematen den definizioari erreparatzen badiogu:

“...Gaitasun honek aukera emango dio ikasleari zer gizarte-errealitate bizi duen ulertzeko, lankidetzak jarduerak egiteko, bizikidetzak lantzeko, eta herritartasun demokratikoa gizarte plural batean erabiltzeko. Halaber, gizartea hobetzen laguntzeko konpromisoa hartzeko aukera emango dio. Gaitasun honek askotariko jakintzak eta trebetasun konplexuak biltzen ditu, beharrezkoak direnak ikasleak gizartean parte har dezan, erabakiak har ditzan, egoera jakinetan nola jokatu hauta dezan eta egindako hautuen ardura har dezan.

Gaitasun honen ezaugarria da herritar aktiboa izatea eta herritartasuna modu integratzailean lantzea; hala, ikasleak ezagutu eta ulertu egin behar ditu estatu eta gizarte demokratikoen oinarrizko balioak, funtsezko alderdiak eta antolamendu eta funtzionamendu moduak. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna eskuratuta, ikasleak gai izan behar du modu kritikoa aztertzeko zenbait kontzeptu — besteak beste, demokrazia, askatasuna, elkartasuna, arduren banaketa, parte-hartzea eta herritartasuna — ...eta, horretarako, zenbait trebetasun eskuratu behar ditu; esaterako, norberaren pentsamenduez, balioez, sentimenduez eta ekintzez jabetzeko trebetasuna eta horiek kontrolatu eta erregulatzekoak...”

Proposatzen ditugun jardueren bitartez, irakasleek, ikasleek, familiek eta langile ez-irakasleek inguruan dituzten pertsonak ezagutzen eta errespetatzen ikasiko dute, aniztasuna berez aberasgarri dela ulertuta. Enpatia, gatazkak bake-bidez ebaztea, autonomia eta gizartearen hobekuntza bilatzen duten erabakiak hartzeko gaitasunak sustatu nahi ditugu, ikasleak herritar aktiboak, gaitasun kritikoa dutenak eta euren eskubide eta betebeharren erabileran arduratsuak izan daitezten.

Aldi berean, bai metodologiaren aldetik, bai lantzen diren gaien aldetik, zuzenean lagunduko dugu ikasleek honako oinarrizko gaitasun hauek gara ditzaten, zeharkakotzat hartuak horiek ere, 175/2007 Dekretuaren III. Eranskinean garatuak:

Ikasten ikasteko gaitasuna

“...Ikasten ikasteak esan nahi du norberak eskuratuak dituela jada zenbait trebetasun, ikasteari ekiteko eta gero eta eraginkortasun eta autonomia handiagoz ikasten jarraitzeko, betiere, ikaste-jarduera hori norberaren helburuei eta premiei egokitzen bada.

Gaitasun honek bi alderdi nagusi ditu. Batetik, norberaren gaitasunen (intelektualak,

emozionalak eta fisikoak) kontzientzia hartzean eta gaitasun horiek garatzeko prozesuaz eta estrategiez jabetzean datza gaitasuna, bai eta nork bere buruari laguntzeko egin daitezkeen jardueraz eta beste pertsona edo baliabide batzuen laguntzaz egin daitezkeenez ohartzea ere. Bestetik, gaitasun honek eskatzen du norbera gauzak egiteko gai dela sentitzea, eta horrek bultzatu egiten ditu motibazioa, nork bere buruan duen konfiantza eta ikasteko grina...ikasleak pentsamendu estrategikoa izan behar du, lankidetzan jarduteko ahalmena eta bere burua ebaluatzekoa; eta lan intelektuala egiteko teknikak eskuratu behar ditu. Hori guztia ikasketa-espereintzia kontziente eta atseginen bidez garatzen da, bai banaka, bai taldean...”

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

“...elkarrekin lotutako zenbait balio eta jarrera pertsonalen kontzientzia izatea eta horiek aplikatzea. Hona balio eta jarrerok: ardura; irmotasuna; nork bere burua ezagutzea eta autoestimua izatea; sormena; autokritika; kontrol emozionala; hautatzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko ahalmena izatea...”

Bestalde...barnean hartzen du hautuak irizpide propioei jarraituz egiteko gaitasuna, proiektuak sortzeko gaitasuna, eta norberak egindako hautuak eta norberaren planak... aurrera eramateko ekintzak egiteko gaitasuna izatea...”

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

Gaitasun honi dagozkion jakintzek, trebetasunek eta jarrerek bide ematen dute pentsamenduak, emozioak, bizipenak eta iritziak adierazteko, elkarriketan aritzeko eta iritzi kritikoak eta etikoak osatzeko, ideiak sortzeko, jakintza egituratzeko, diskurtsoari eta norberaren ekintzei eta egitekoiei koherentzia eta kohesioa emateko, erabakiak hartzeko eta ahozko nahiz idatzizko entzunaldiez, irakurraldiez nahiz mintzaldiez gozatzeko. Horrek guztiak, gainera, autoestimua eta norberarenganako konfiantza handitzen laguntzen du.

Komunikatzeko eta elkarriketan aritzeko, harreman eta lotura eraikitzaileak sortu behar dira pertsonekin eta ingurunearekin... Nabarmena da, horrenbestez, bizikidetzarako eta gatazkak konpontzeko ahalmenarekin erabat loturik dagoela hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna...”

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

“...baldintza hauek bete behar ditu ikasleak: autonomiaz, eraginkortasunez, arduraz, ikuspegi kritikoaz eta zuhurtasunez hautatu, tratatu eta erabili behar ditu informazioa, informazio-iturriak eta baliabide teknologikoak; eskura duen informazioa jarrera kritikoaz eta zuhurtasunez balioztatu behar du, eta, beharrezkoa bada, egiaztatu egin behar du informazio hori; eta, halaber, bete egin behar ditu gizarteak informazioko eta informazio-iturrietako euskarrien erabilerarako adostu dituen jokabide-arauak..”

Banakako lana eta taldekakoa, hausnarketa, erabakiak hartzea eta konpromiso egiazko eta neurgarriak hartzea uztartzen dituzten jarduerak proposatzen ditugu gure proposamenean, ikaslea bera gai izan dadin hurbileneko inguru soziala hobetzeko ekintza kontziente eta adostuak planifikatu eta gauzatzeko. Egoera jakin batzuetan, ingurune errealitatea ezagutzea eskatuko die irtenbideak bilatzeko premiak, eta, aldi berean, beharrezkoa izango dute espirtu kritikoa “modetatik”, komunikabideen eraginetik, kidekoen presioetatik eta abarretatik urruntzeko.

Gainera, akordioetara iristeko, euren iritzi eta jarrerak argudiatu beharko dituzte, ikaskideen iritzia entzun beharko dute, askotariko gaiei buruz hitz egin eta eztabaidatu dezakegula onartu eta askotariko iritzi edo ikuspuntuak onartu beharko dituzte.

Eta prozesu horretan guztian, berebiziko eragina izango dute Informazio eta Komunikazioen Teknologiek, sare sozialen bultzada gero eta handiagoak, zeinak bihurtu baitira gazte eta nerabeen sozializazio-elementu nagusietakoak. Sare sozialen erabilera nolakoa den aztertu beharko da, baita ulertu ere esponentzialki handitzen dutela edozein ekintza eta, ondorioz, esparru horretako portaerak ondorio nabarmenak izan ditzakeela.

Bestalde, Hezkidetza Planaren garapenean, Ikasleekin Esku Hartzeko Plana gauzatuko da, ikasleek, irakasleek eta hezkuntzako gainerako eragileek egindako diagnostikoa kontuan hartuta. Plan horretan, tutoreek Tutoretza Planean eta irakasleek irakasgai bakoitzean jorratu beharko dituzten jarduerak zehaztuko dira.

Hala, irakasgaietan genero-ikuspegia txertatuz, gainerako **oinarrizko gaitasunen** garapenean eragingo dugu gure ikasleengan:

- **Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna**
- **Matematikarako gaitasuna**
- **Giza kulturarako eta arte-kulturarako gaitasuna**

Gure helburua da irakasten ditugun gai guztietan emakumearen inguruko hausnarketa egitea: emakumearen presentzia, jakintza, eta eragina, kulturaren, gizartean, lan-arloan eta gainerako arlo guztietan. Genero-ikuspegi horretara egokitzen ez diren curriculumeko edukiak osatu egin beharko dira; hain zuzen ere, emakumearen agerikotasuna sustatzeko jarduerak inplementatu beharko dira.

OHARRA: *Hemen azaltzen diren gaitasunak, gure ustez, laster argitaratuko den Heziberri 2020rekin bat datoz.*

Helburu orokorrak eta berariazkoak

1. Hezkidetza Planaren garapenean hezkuntza-komunitate osoaren partaidetza bultzatzea.
 - 1.1. Hezkidetza Planaren garapenean irakasle guztien partaidetza bermatzea.
 - 1.2. Ikastetxeko familia ahalik eta gehien partaidetza bultzatzea, parte hartzeko gonbita eginez, partaidetza-proposamenak eginez eta euren egoerari, lan-ordutegiari eta abarri egokituriko denbora eta espazioak eskainiz.
 - 1.3. Hezkidetza Planaren garapenean ikasleen partaidetza bermatzea, hezkuntza-etapa bakoitzaren adin eta ezaugarriak kontuan hartuta.
 - 1.4. Hezkuntza-komunitatea osatzen duten hezkuntzako eragile guztien partaidetza bultzatzea, hala nola AZP, jangelako begiraleak, Eskola Kirolekoak...
2. Gure komunitatea osatzen duten pertsona guztiak ohartaraztea genero-berdintasuna lortzeko ezinbestekoa dela hezkidetza-ikuspegia hezkuntza-jardunean txertatzea.

- 2.1. Hezkidetzaren eta genero-berdintasunaren inguruko jarrera, sinesmen, balio, aurreiritzi eta abarren gaineko hausnarketa egitea.
- 2.2. Hezkuntza-komunitate osoan aniztasunarekiko errespetua sustatzea, arlo guztietan: erlijioa, kultura, sexua, familia...
- 2.3. Hezkidetzaren eta genero-ikuspegiaren inguruko oinarrizko kontzeptuak argitzen eta adosten lagunduko digun hizkuntza komun bat partekatzea.
- 2.4. Hezkuntza-komunitate osoak pentsatu eta adostutako hezkidetzaren definizio bat osatzea.
3. Irakasle, familia eta hezkuntzako gainerako eragileek ikasleen prestakuntzan balio eta jarrera igorle gisa dugun garrantziaz konturatzea.
 - 3.1. Gure sinesmenek, jarrerak... gure eguneroko bizitzan, familian eta ikastetxean daukagun jokabidean duten eragina nola moldatzen joaten den ikusaraztea.
 - 3.2. Gure jokabideak gure ikasle eta seme-alaben hezkuntza-prozesuan eta harremanetan dituen ondorioez konturatzea.
4. Hezkidetzaren gure ikasleen garapen integral eta osoa lortzeko bidea dela ikusaraztea, oztoporik gabeko gizarte baten etorkizuneko hiritar izan daitezen.
 - 4.1. Norberaren, hezkuntzako, familiako... egoerak aztertzerako eramango gaituzten ekintza edo jarduerak egitea, eta, hortik abiatuta, genero-berdintasuna dagoen edo ez dagoen gizarte batean bizitzeak zer dakarren hausnartzea.
 - 4.2. Genero-berdintasun benetakoa bermatuta dagoen eta ez dagoen egoeretan, testuinguruetan... bizi diren emakumezkoek eta gizonezkoek dituzten bizi-baldintzak alderatzea.
 - 4.3. Norberaren eta taldearen aldaketa sustatzeko proposamenak egitea, gure arteko harremanak eta, oro har, gizarte hobetzeari begira.
5. Ikastetxean diagnostikoa bultzatzea sexismoari eta estereotipoei dagokienez dugun errealitatea ezagutzearren; horretarako, errealitate horiei antzemateko irizpideak garatuko dira, edukietan zein materialetan eta hizkuntzaren erabileran.
 - 5.1. Egoera konplexu jakin baten gaineko iritziak partekatu eta alderatzea.
 - 5.2. Genero-berdintasuna sendotzen edo ahultzean eragina duten arloak aztertzea:
 - Ikastetxearen antolaketa eta kudeaketa
 - Ikasgelaren antolaketa eta kudeaketa
 - Irakaskuntza-estiloa
 - Partaidetza eta ordezkartza
 - Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak
 - Elkarbizitzaren antolaketa eta kudeaketa
 - 5.3. Gure ikastetxean eta hurbilen dugun ingurunean genero-berdintasuna errazten eta bermatzen duten egoerei antzematea.
 - 5.4. Egoera horiek zergatik gertatzen diren eta zer ondorio dakartzaten aztertzea.
 - 5.5. Gure ikastetxean eta hurbilen dugun inguruan genero-berdintasuna zaildu edo oztopatzen duten egoerei antzematea.

- 5.6. Egoera horiek zergatik gertatzen diren eta zer ondorio dakartzaten aztertzea.
- 5.7. Egindako diagnostikoan oinarritutako neurriak eta jarduerak proposatzea, antzemandako mugak (aurreiritziak eta estereotipoak) gainditzeko eta genero-berdintasun benetakoa lortzeko helburuarekin.
6. Hurrengo ikasturtean garatuko diren helburuak eta jarduerak planifikatzea, Urteko Planean adieraztea, Urteko Oroitidazkian ebaluatzea eta, beharrezkoa balitz, jarduera berriak proposatzea.
 - 6.1. Hezkuntza-komunitateko estamentu bakoitzak jasotako eta landutako informazioa helburu bihurtzea.
 - 6.2. Estamentu bakoitzari dagozkion helburuen artean lehentasunak finkatzea eta ikastetxean helburuak adostea.
 - 6.3. Estamentu bakoitzaren prestakuntza, antolakuntza... beharrei antzematea, horiei erantzuteko.
 - 6.4. Hezkidetzeta eta Genero Berdintasunaren Planean adostutako helburuak planifikatzea.
 - 6.5. Planifikatutako Urteko Planean adieraziko dela eta Urteko Oroitidazkian ebaluatuko dela bermatzea.
7. Ikastetxearen antolaketa, kudeaketa eta curriculumari dagozkion dokumentuak genero-berdintasunaren ikuspegitik pixkanaka berrikustea, eta, hala behar izanez gero, ikuspegi horretara egoki daitezen lortzea.
 - 7.1. Honako dokumentu hauen pixkanakako berrikuspena bermatzea, baita aldaketa ere, hala behar izanez gero:
 - Dokumentu instituzionalak: IHP, Harrera Plana, Elkarbizitza Plana...
 - Curriculumari buruzko dokumentuak: ICP, ikasgelako programazioak, Tutoretza Plana, hobekuntza-planak, Hizkuntza Proiektua...
 - Antolaketa-dokumentuak: AJA, Arautegia...
 - Kudeaketa-dokumentuak: Urteko Plana eta Oroitidazkia, kudeaketa ekonomikoa...
 - Beste batzuk.
8. Genero-berdintasun eraginkorrerako pausoak ematea.
 - 8.1. Ikastetxeko zuzendaritza-, didaktika- eta partaidetza-organoetan berdintasunezko partaidetza lortzea: Zuzendaritza Taldea, batzordeak, OOG,...
 - 8.2. Ikastetxean eskola orduetan nahiz eskola ordu ez kanpo egiten diren jarduerak neska-mutilen berdintasunezko partaidetza bultzatzen dutela bermatzea.
9. Genero-indarkeriako egoerei –indarkeria horren adierazpen guztiei– antzematen eta aurrea hartzen laguntzea.
 - 9.1. Gure ikasleen eguneroko bizitzan eskolan, familian, gizartean..., genero-indarkeria areagotzea edo deuseztatzea dakarten egoerak identifikatzea.
 - 9.2. Egoera horietan zer pauso egingo diren adostea, jokaera-protokolo bat ezartzea.
 - 9.3. Genero-indarkeriaren prebentzioan lagungarri izango ditugun jarduerak eta ekintzak zehaztea.

10. Hezkidetza Plana egitea.

- 10.1. Hezkuntza-komunitateko estamentu guztiek aurretik egindako jarduerak aintzat hartzea (sentsibilizazioa, diagnostikoa, planifikazioa eta ebaluazioa).
- 10.2. Proposatutako helburuak kontuan hartzea, eta hurrengo ikasturterako lehenetsitakoak jasotzea.
- 10.3. Dokumentu honen ebaluazio-prozesua finkatzea.

Edukiak

1. Hezkuntza-komunitate osoak parte hartzea Hezkidetza Planaren garapenean.
2. Komunitate osoaren sentsibilizazioa, hezkuntza-jardunean hezkidetza-ikuspegia txertatzeko beharrari buruz.
3. Hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztiak ohartaraztea ikasleen prestakuntzan balio eta jarrera igorle gisa dugun garrantziaz.
4. Hezkidetza eta genero-berdintasunari buruzko kontzeptuak argitzea, hizkera eta esanahi bera partekatzen.
5. Modu inkontzientean erabiltzen ditugun uste, aurreiritzi eta estereotipoen inguruko hausnarketa, horiek azalera ateratzeko eta eredu horiek errepika daitezkeen ekiditeko.
6. Ikastetxeko diagnostikoa. Ikastetxearen errealitatea, sexismoari eta estereotipoei dagokienez. Horiei antzemateko irizpideak garatzea, edukietan, materialetan nahiz hizkuntzaren erabileran.
7. Antzemandako oztopoak (aurreiritziak eta estereotipoak) gainditzeko neurri eta ekintzak diseinatzea.
8. Hurrengo ikasturtean garatuko diren helburu eta jarduerak planifikatzea.
9. Planifikazioaren jarraipen eta ebaluazioa, Urteko Planaren eta Urteko Oroitidazkiaren bitartez.
10. Ikastetxearen antolaketa, kudeaketa eta curriculumari dagozkion dokumentuetan agertzen diren eduki sexistak aztertzea eta aldatzea.
11. Ikastetxeko elkarbizitza eta pertsonen arteko harremanak aztertzea eta hobetzea.
12. Genero-indarkeriako egoerei –adierazpen guztiei– antzemateko eta aurrea hartzeko ekintzak diseinatzea.
13. Hezkidetza Plana garatzea.

Orientazio metodologiko orokorrak

Proposatzen diren jarduera guztiak ikastetxeko Klaustroan eta Eskola Kontseiluan hezkidetzaren arduradun izendatutako kideek koordinatuko dituzte.

Gure proposamena haratago doa, ordea, uste baitugu lan horrek ez duela izan behar kide baten edo biren ardura; aitzitik, gure ustez, lana koordinatzeko **talde** bat behar da, arduradun izendatutako kideak talde horren partaide direla. Ildo horretatik, ikastetxeko Hezkidetza Plana modu egokian egiteko dinamizazioa eta koordinazioa **Zuzendaritza Taldeak, Pedagogia**

Batzordeak edo horretarako propio sortutako **Talde Koordinatzaileak** egin beharko lituzke, gure iritzian. Talde koordinatzaile horrek hezkuntzako eragileen (irakasleak, familiak, langile ez-irakasleak, ikasleak...) proposamenak bilduko ditu, horren arabera ekintza-plan bat garatzeko (epe labur edo ertainean aurrera eramateko helburu eta jarduerak) hurrengo ikasturteari begira, eta irakasleen klaustroari eta eskolako gainerako kideei aurkeztuko zaie. Plana **Urteko Planean** txertatuko da, eta **Urteko Oroitidazkian** ebaluatuko. Hurrengo ikasturtean egin ezin diren proposamenak ere jaso egingo dira, eta beste garai batean gauzatzeko gordeko dira.

Gelan, taldeko tutoreak lan egingo du ikasleekin, tutoretza-saioetan, aprobetxatuz Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan badiela tutoretza-ekintzarako berezko espazioak. Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailan Herritartasunerako Hezkuntza irakasgaiko saio batzuk ere aprobetxa daitezke. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan Etika irakasgaiaren ere txerta liteke. Dena den, Oinarrizko Irakaskuntzan irakasten den beste edozein irakasgaitan landu daiteke, betiere dagokien irakasleek egokia irizten badiote, irakasgaietan genero-ikuspegia txertatzeari begira.

Eskola-komunitateko gainerako kideekin egin beharreko ekintzak Talde Koordinatzaileak garatuko ditu.

Lanketa ikastetxeko ohiko funtzionamendu egituretan egin daiteke, egitura berriak sortu gabe, batzuetan zaila izaten baita egitura berriak mantentzea eta jarraitutasunik gabe aldentu egingo baikara lortu nahi dugun helburutik. Adibidez, gai hauen lanketa **Elkarbizitza Behatokian** edo/eta **Elkarbizitza Batzordean** txerta ditzakegu, ikastetxeko elkarbizitzan eta giroan eragiten duen beste edozein gairekin batera.

Proposatzen diren jarduera gehienetan, bakarkako hausnarketa izango da lehen urratsa; gero, talde txikian partekatuko dira, eta, azkenik, talde handian.

Hurrengo saioaren hasieran aurreko jardueraren gainbegiratu egingo da, landutakoaren eta trukaturako ideien laburpena eta eguneko saioan egin beharrekoak azalduko dira.

Ahalik eta jende gehienek parte har dezan saiatuko gara beti, eta aintzat hartuko ditugu partaideen iritzi eta proposamenak.

Fase bakoitzeko hausnarketa eta errealitatearen analisia gidatzeko tresna batzuk daude. Horiez gain, fase batzuetarako material osagarria ere sortu da, askotariko gaiei buruzkoa, hainbat unetan lagungarri izan daitekeena egitea dagokigun jardueraren arabera.

Tresnak liburu honetan bertan eta plancoeducacion.igualdad@gmail.com helbidean daude eskuragarri; eta gainerako materialak bibliografian aipatuta daude.

Azken dokumentua lantzeko proposamena ere eskaintzen da, estamentu guztiek helburuak lortzeko egindako proposamenak jasotzen dituen.

Hezkidetza Plana Klaustroari eta Eskola Kontseiluari aurkeztuko zaie, haiek onspena eman diezaioten. Onartu ondoren, eskola-komunitateko gainerako kideei aurkeztuko zaie dokumentua.

HEZKIDETZA ETA BERDINTASUN PLANA GARATZEKO
FUNTZIONAMENDU PROPOSAMENA

ZUZENDARITZA TALDEA
ETA KLAUSTRO ETA OOGko
BERDINTASUN ORDEZKARIAK

PEDAGOGIA
BATZORDEA

ELKARBIZITZA
BATZORDEA


TALDE
KOORDINATZAILEA

ELKARBIZITZA
BATZORDEA



HEZKIDETZA ETA GENERO BERDINTASUNAREN PLANA
GARATZEA ONARTZEA

HEZKIDETZA PLANAK IKASTETXEAREN GAINERAKO
DOKUMENTUEKIN (INSTITUZIONALAK, CURRICULARRAK EDO
ANTOLAKETAKOAK) DUEN LOTURA



Ebaluazioa

Irakaskuntza-ikaskuntzako edozein prozesutan funtsezko elementua da ebaluazioa; hezkuntza-espereientzia bat abian jartzen dugunean berezkoa eta, aldi berean, ezinbestekoa, aurrera eramandako espereientziaren heziketa-balioaren gaineko ikerketa-prozesuan.

Ebaluazioaren helburua irakasleek planifikatu eta gauzatutako irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuen hobekuntza eta mailakako erregulazioa da. Horregatik, ebaluazioa gauzatzeko irizpide batzuk finkatzea komeni da, eta zeregin hori erraztuko diguten baliabideak diseinatu.

Ebaluazio-prozesuak osoa izan behar du; hori dela eta, zenbait ebaluazio bereiziko ditugu, egiten diren unean arabera, elkarren osagarriak.

Hasierako ebaluazioa

Hasierako ebaluazioaren xedea da abiapuntua zein den jakitea, eta jakintza-eremu zehatz bati loturik egingo ditugun aurreragoko ekintzak egokitzen lagunduko digu.

Gure proposamenean, sentsibilizazio-fasean estamentu bakoitzari begira eskaintzen diren baliabideen bidez, hasierako ebaluazioa egin eta irakasle, familia, ikasle eta hezkuntzako gainerako eragileek hezkidetzari eta genero-berdintasunari buruz dauzkaten uste, pentsamendu, iritzi eta abarrak ezagutuko ditugu.

Ebaluazio jarraitua eta hezigarria

Prozesua garatzen den bitartean haren jarraipena egitea proposatzen da; horrela, aldaketak, egokitzapenak eta hobekuntzak egin ahal izango dira prozesuan bertan nahiz erritmoetan, metodologian eta abarretan. Ildo horretatik, ebaluazio jarraitua ebaluazio hezigarria dela esan liteke. Prozesuaren ebaluazioa egitea garrantzitsua da, ez azken emaitza ebaluatzea bakarrik, baizik eta prozesua bera ulertzea eta haren oztopo edo akatsak identifikatzea, horiek gainditzeko eta irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua ongi garatzeko.

Ebaluazioa egiteko, **lansaioen ebaluazio**rako baliabideak proposatzen ditugu. Ebaluazio bikoitza proposatzen da, oro har, kolektibo guztientzat: **ebaluazio kuantitatiboa**, saio bakoitza 1etik 10era ebaluatu beharko dutelako, eta **ebaluazio kualitatiboa**, saioa hitz edo esaldi esanguratsu baten bitartez ebaluatzea eskatzen zaielako. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak izango dira horretan salbuespena: ebaluazio intuitiboago planteatzen da haientzat; hain zuzen ere, emotikonoak dauzkaten txartelak erabiltzea proposatuko zaie saioak ebaluatzeko.

Ebaluazio jarraitu eta hezigarriaren prozesuak badu beste zati bat: lansaiok dinamizatzen dituzten pertsonen lanaren ebaluazio orokorra, hain zuzen ere, euren irakas-jarduera ebaluatzen lagunduko diena.

Bestalde, **fase bakoitza bukatutakoan, ebaluazio** zehatzago bat egingo da, ebaluazio kuantitatiboa eta kualitatiboa proposatzen dituena; partaidetza, metodologia, inplikazioa, interesa, tenporalizazioa... aztertzen dituzten ebaluazio-irizpideak finkatzen dira ebaluazio kualitatiborako.

Ebaluazio hau prozesuan parte hartu duten estamentu guztiekin egingo da, Lehen Hezkuntzan 3. zikloko ikasleekin besterik ez egitea proposatzen baldin bada ere.

Azken ebaluazioa

Azken ebaluazioa, gure lan-proposamenaren arabera, Hezkidetza eta Genero Berdintasunaren Plana egitean eta hezkuntza-komunitateari aurkeztean datza.

Aipatutako ebaluazioa egiteko, honako baliabide hauek proposatzen ditugu:

Saio bakoitzaren ebaluaziorako baliabideak:

- Irakasleak, familiak eta hezkuntzako gainerako eragileak:
 1. Saio bakoitzaren ebaluazioa, irakasle, familia eta hezkuntzako gainerako eragileei dagokienez.
- Ikasleak:
 1. Saio bakoitzaren ebaluazioa, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. zikloetako ikasleei dagokienez.
 2. Saio bakoitzaren ebaluazioa, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei dagokienez.

Fase bakoitzaren (sentsibilizazioa, diagnostikoa eta planifikazioa) ebaluaziorako baliabideak, garatzen doazen heinean egiteko

- Ikasleak:
 1. Fase bakoitzaren ebaluazioa, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleei dagokienez.
 2. Fase bakoitzaren ebaluazioa, Bigarren Hezkuntzako ikasleei dagokienez.
- Irakasleak, familiak eta hezkuntzako gainerako eragileak:
 1. Fase bakoitzaren ebaluazioa, irakasle, familia eta hezkuntzako gainerako eragileei dagokienez.